



ZESTOAKO UDALA

2023 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

EBAZPEN PROPOSAMENA

GIZARTE ZERBITZUEN INFORMAZIO BATZORDEAK, Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak kudeatzen duelarik, honako ebazpen-proposamena jakinarazten dio ebazteko gaitasuna duen organo eskudunari ondorengo kontuan hartuz:

- 2023ko apirilaren 17an, Zestoako Udalak Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza argitaratu zuen Udalaren Web orrialdean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea 2023ko irailaren 1ean amaitu zen eta epe barruan 6 eskaera aurkeztu dira, eta horiek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuen informazio batzordeak baloratu zituen Udalbatzak onartutako oinarriak kontuan izanik.
- 2023ko urriaren 17an Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** eman eta lehenengo ordainketa egin zen.
- Bigarren ordainketari dagokionez, Udalaren aurrekontuan laguntzaren inguruan egindako kontsignazio ikusita, eta Alkatetza izanik laguntza ebazteko eskumena duen organoa, ondorengo proposamena egiten dugu

EBAZPEN PROPOSAMENA

Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-behineko ebazpena** ematea.

Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2023 urterako.

Bigarren ordainketa

ZESTOAKO UDALAK ONARTUAK	
ONURADUNA (NAN/IFK)	ONARTUTAKOA (Urritik-Abendura)
72471****	400,00 €
72523****	451,44 €
15956****	630,00 €
20181****	624,00 €
15245****	660,00 €



ZESTOAKO UDALA

2023 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

Diru-laguntza honen ebazpena behin behinekoa da eta Udalaren web orrian argitaratu eta interesatuei banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkezteko hamar eguneko entzunaldi epea emanaz argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Laguntza onartzearen ezezko kasuetan, gainera, interesatuei entzunaldi epea espresuki jakinaraziko zaie.

Ebazpenean nork bere eskabidean jarri zuen kopurua baino txikiagoa proposatu bada, oinarrian ezarri denari jarraituta, onuradunek eskabideak berriro aurkez ditzakete ebaluazioa egingo duen instrukzio-organo kide anitzak aintzat har ditzan. Edonola ere, eskabidea berriz egingo da diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua kontuan hartuta, eta eskabideei edo eskaerei begira ezarri diren balioztatze -irizpideekin bat etorritz.

Ebazpena argitaratu eta alegaziorik aurkeztuko balitz, hauek lehen bailen erabakiko dira eta denak ebatzi arte ez da behin betiko ebazpena argitaratuko.

Epea amaitu ondoren, ez bada alegaziorik aurkezten eta beraz, denen onarpena agertzen denean ebazpen honen aurrean, behin betiko ebazpena egingo da.

Zestoan, 2024ko urtarrilaren 8an

GIZARTE ZERBITZUKO INFORMAZIO BATZORDEKO BURUA
-Anabela Odriozola Ugarte-